Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko apirilaren 10a, osteguna — 69 — Jueves, a 10 de abril de 2025



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## MUGIKORTASUNEKO, TURISMOKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA

### Turismo Zuzendaritza Nagusia

*Turismo-enpresak sustatzeko eta merkaturatzeko zerbitzuak eta jarduerak digitalizatzeko eta/edo ekintzaileetzarako dirulaguntzen 2025eko deialdia.*

Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuak martxoaren 31ko FA-ML-2025-0067 Foru Agindu bidez honako hau ebatzi du:

Diputatuen Kontseiluak 2022ko apirilaren 26an hartutako erabakiaren bidez, turismo-enpresak sustatzeko eta merkaturatzeko zerbitzuak digitalizatzeko eta/edo ekintzaileetzarako dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2022ko deialdia onartu ziren (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 84. zk., 2022ko maiatzaren 5ekoa).

Ondoren, Diputatuen Kontseiluak 2023ko martxoaren 7an hartutako erabakiaren bidez, 3. oinarri arautzailea aldatu zen, eta, horrez gain, 2023ko ekitaldiko deialdia onartu zen (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 60. zk., 2023ko martxoaren 28koa).

Turismo enpresentzat laguntza programaren dirulaguntza lerroa 2024-2027 Gipuzkoako Foru Aldundiaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago.

Dirulaguntza horien bidez sustatu nahi da: sektorean balioa sortuko duten turismo-negozio berriak sortzea, baita Gipuzkoako turismo-eskaintzaren lehiakortasuna, sustapena eta merkaturatzea hobetuko duten tresna teknologikoak garatzea ere.

Aurreko urteetan gauzatutako laguntza-programaren balorazioak agerian uzten du komenigarria dela mikroenpresa turistikoak sustatzen jarraitzea, dirulaguntza hauen helburuak lortzeko.

Horretarako, Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren 2025eko aurrekontuetan kopuru hau aurreikusi da: 199.000 euro.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 40.4.b) artikuluan eta xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, foru diputatu honi dagokio, zenbatekoa dela eta, laguntzen deialdia onestea.

Horregatik guztiagatik, Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru diputatu honek

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* Onartzea turismo-enpresak sustatzeko eta merkaturatzeko zerbitzuak eta jarduerak digitalizatzeko eta/edo ekintzaileetzarako dirulaguntzen 2025eko ekitaldiko deialdia, foru agindu honekin batera eranskin gisa doana.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD, TURISMO Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

### Dirección General de Turismo

*Convocatoria de 2025 de las subvenciones para el emprendimiento y/o la digitalización de los servicios y actividades de promoción y comercialización para empresas turísticas.*

La Diputada Foral de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio, mediante Orden Foral FA-ML-2025-0067, de 31 de marzo, ha resuelto:

Mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 26 de abril de 2022, se aprobaron las bases reguladoras y la convocatoria 2022 de las subvenciones para el emprendimiento y/o la digitalización de los servicios y actividades de promoción y comercialización de empresas turísticas (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 84, de 5 de mayo de 2022).

Posteriormente, mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 7 de marzo de 2023, se modificó la Base Reguladora n.º 3, además de aprobarse la convocatoria correspondiente al ejercicio 2023 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 60, de 28 de marzo de 2023).

La línea de subvención del programa de apoyo a empresas turísticas se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La finalidad de dichas subvenciones es incentivar la creación de nuevos negocios turísticos que generen valor en el sector, así como el desarrollo de herramientas tecnológicas que mejoren la competitividad, promoción y la comercialización de la oferta turística de Gipuzkoa.

La valoración del programa de ayudas ejecutado en años anteriores pone de manifiesto la conveniencia de continuar incentivando a las microempresas turísticas a fin de alcanzar los objetivos de estas subvenciones.

Para la financiación de dichas ayudas, en los presupuestos del Departamento de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio del ejercicio 2025 se ha previsto la consignación de un total de 199.000 euros.

De conformidad con lo establecido en el artículo 40.4.b) y en la disposición adicional de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, corresponde a esta diputada foral, por razón de la cuantía, la aprobación de la convocatoria de ayudas.

Considerando lo expuesto, esta diputada foral del Departamento de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio

RESUELVE

*Primero.* Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2025 de subvenciones para el emprendimiento y/o la digitalización de los servicios y actividades de promoción y comercialización de empresas turísticas, que se acompaña a la presente orden foral como anexo.

EK\CV GAO-I-2025-02542

*Bigarren.* Baimentzea 199.000 euroko gastua, deialdi hau gauzatzeko, ondorengo kontu-sailen kargura: 1.0620.200.470. 00.07.2025.

*Hirugarren.* Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2025eko martxoaren 31.—Itziar Miner Canflanca, idazkari teknikoa. (2542)

ERANSKINA

*2025eko deialdia, turismo-enpresak sustatzeko eta merkaturatzeko zerbitzuak eta jarduerak digitalizatzeko eta/edo ekintzailetzarako dirulaguntzak emateko.*

1. *Oinarri arautzaileak.*

Deialdi hau ondorengo Diputatuen Kontseiluaren erabakien bidez onetsitako oinarri arautzaileek arautzen dute: 2022ko apirilaren 26koa (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 84. zk., 2022ko maiatzaren 5ekoa) eta 3. oinarriaren aldaketa onartzen duen 2023ko martxoaren 7koa (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 60. zk., 2023ko martxoaren 28koa).

2. *Finantzaketa.*

2.1. Deialdi honetan emango diren dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa ehun eta laurogeita hemeretzi mila (199.000) eurokoa izango da, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorreko ondorengo kontu sailaren kargura: 1.0620.200.470. 00.07.2025.

2.2. Aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak, aurkeztutako eskabideak ebatzi aurretik, baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, baina horrek ez du deialdi berririk eragingo. Zenbateko gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzea.

3. *Baldintzak.*

2. oinarri arautzailean ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek jaso ahal izango dituzte laguntza hauek.

4. *Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasiko da eta 2025eko maiatzaren 9ko 15:00etan amaituko da.

5. *Eskaerarekin batera aurkeztu behar diren agiriak.*

5.1. Eskabiderako sarbidea «Dirulaguntzen ataria»n dago. Eskaeran, eskatzailearen identifikazio datuez gain, erantzukizunpeko aitorpen bat ere jaso behar da. Aitorpenean, ziurtatu behar da eskatzaileak ez duela erakunde onuradun izateko debekurik, eta, horrez gain, adierazi behar da xede bererako zer dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide eskatu edo eskuratu diren.

*Segundo.* Autorizar un gasto por importe de 199.000 euros para hacer frente a esta convocatoria con cargo a la partida 1.0620.200.470.00.07.2025.

*Tercero.* Publicar la presente orden foral en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra la misma recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta diputada foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 31 de marzo de 2025.—La secretaria técnica, Itziar Miner Canflanca. (2542)

ANEXO

*Convocatoria 2025 para el otorgamiento de subvenciones para el emprendimiento y/o la digitalización de los servicios y actividades de promoción y comercialización para empresas turísticas.*

1. *Bases reguladoras.*

La presente convocatoria se rige por las bases reguladoras aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 26 de abril de 2022 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 84, de 5 de mayo de 2022), y la modificación de la base 3.ª aprobada por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 7 de marzo de 2023 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 60, de 28 de marzo de 2023).

2. *Financiación.*

2.1. La cuantía máxima de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de ciento noventa y nueve mil (199.000) euros con cargo a la siguiente partida de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa: 1.0620.200.470. 00.07.2025.

2.2. El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

3. *Requisitos.*

Podrán optar a estas ayudas las personas físicas y jurídicas que cumplan los requisitos establecidos en la base reguladora 2.ª

4. *Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo para la presentación de las solicitudes se iniciará al día siguiente de la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará a las 15:00 horas del 9 de mayo de 2025.

5. *Documentación que acompaña a la solicitud.*

5.1. A través del «Portal de subvenciones» se accederá a la solicitud, que además de los datos identificativos de la entidad solicitante, incluye la declaración responsable de no estar incursa en las causas de prohibición para obtener la condición de entidad beneficiaria, así como de las subvenciones, ingresos o recursos solicitados u obtenidos para la misma finalidad.

EK\CV GAO-I-2025-02542

Eskaerarekin batera honako dokumentu hauek ere aurkeztu behar dira:

— Diruz lagundutako jardueraren laburpena.

— Gastuen fakturak edo aurrekontuak.

5.2. Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak, aurkeztutako jarduerak ondo ebaluatu eta erabakitzeko beharrezkotzat jotako informazio oro eskatu ahal izango die enpresa eta erakunde eskatzaileei. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 78. artikuluan ezarritako hamar eguneko epean informazio hori ez bada aurkeztu, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatu egingo da, aipatutako legeko 21. artikuluan ezarritakoaren araberako administrazio-ebazpenaren bidez.

*6. Dokumentazio elkarreragingarria eta egiaztagarria.*

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 28. artikuluan aitortzen du interesdunek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak edo beste edozein administraziok egindakoak ez aurkezteko; beraz, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki jaso behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datu bitartekaritzarako plataformei edo horretarako prestatutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

Gipuzkoako Foru Aldundia Nisae Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoaren parte da. Plataforma hori euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat da, haien artean eta gainerako administrazioekin datu elektronikoak trukatzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Foru Administrazioak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzea eta lortzea ahalbidetzen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

Deialdi honetan honako betekizun hauek egiaztatuko dira bitartekaritza plataformen bidez:

a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

b) Zerga betebeharrak egunean izatea; Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekin egiaztatuko da hori.

c) Erakunde eskatzailea 2. oinarrian jasotako jarduereetako bati dagokion JEZaren epigrafean alta emanda egotea (erakunde onuradunak).

*7. Dirulaguntzak zuritu eta ordaintzea.*

7.1. Erakunde onuradunek proiektua bere osotasunean egin dutela zuritu beharko dute deialdiaren urteko abenduaren 1a baino lehen.

7.2. Dirulaguntza honako hauek aurkeztu ondoren ordainduko da:

— Eragindako gastuen memoria zehatza.

— Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua.

— Merkataritzako trafiko juridikoan pareko froga-balioa duten edo eraginkortasun administratiboa duten fakturak edo dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan jasotakoak.

— Beste laguntza batzuen deklarazioa: proiektu beragatik eskatutako edo eskuratutako laguntzak eta bestelako dirulaguntzak.

*8. Eskaerak ebazteko eta jakinarazteko epea.*

Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen denetik aurrera kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan ez bada ebazpena jakinarazi, eskatzaileek eskaera ezetsitzat joko dute, administrazioaren isiltasunagatik.

La solicitud deberá acompañarse de la siguiente documentación:

— Resumen de la actividad subvencionada.

— Facturas o presupuestos de los gastos.

5.2. El Departamento de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio podrá pedir a las empresas y entidades solicitantes cuanta información entienda necesaria para la correcta evaluación y resolución de las actividades que se presenten. De no recibirse dicha información en el plazo de diez días previsto en el artículo 78 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, se les tendrá por desistidos de la solicitud, archivándose sin más trámite, previa resolución administrativa dictada en los términos señalados por la citada ley en su artículo 21.

*6. Documentación interoperable y verificable.*

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones, en el artículo 28 reconoce el derecho de las personas interesadas a no aportar los documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración, de tal forma que la administración actuante podrá consultar o recabar dichos documentos, salvo que la persona interesada se opusiera a ello. Las Administraciones Públicas deben recabar los documentos electrónicamente a través de sus redes corporativas o mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas habilitados para ello.

La Diputación Foral de Gipuzkoa forma parte del nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi Nisae, plataforma común para todas las administraciones y entidades del sector público vasco como nodo autonómico para implementar el intercambio de datos electrónicos entre ellas y con el resto de las administraciones. Además de ello, la Administración Foral hará uso de aplicaciones de la red corporativa foral u otros sistemas que permitan la verificación y obtención de documentos.

Los requisitos que se verificarán en esta convocatoria a través de las plataformas de intermediación serán los siguientes:

a) Estar al corriente de las obligaciones frente a la Seguridad Social.

b) Estar al corriente del cumplimiento de obligaciones tributarias, que se verificará con el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

c) Estar la entidad solicitante dada de alta en el epígrafe del I.A.E. correspondiente a alguna de las actividades recogidas en la Base n.º 2 (entidades beneficiarias).

*7. Justificación y pago de la subvención.*

7.1. Las entidades beneficiarias deberán justificar la subvención con anterioridad al 1 de diciembre del año de la convocatoria.

7.2. El abono de la subvención se realizará previa presentación de:

— Memoria detallada de los gastos ocasionados.

— Una relación clasificada de los gastos de la actividad.

— Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior.

— Declaración de otras ayudas y de otras subvenciones solicitadas y/u obtenidas para el mismo proyecto.

*8. Plazo de resolución de las solicitudes y notificación.*

El plazo máximo para dictar y notificar la resolución que corresponda será de seis meses, a contar a partir de la publicación de la convocatoria. Transcurrido dicho plazo sin haberse notificado la resolución, las personas interesadas podrán entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

EK\CV GAO-I-2025-02542

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1. artikuluan ezarritakoari jarraituz, dirulaguntzei buruzko ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat hartuko da lege ondorio guztietarako argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

EK\CV GAO-I-2025-02542